

AZTERKETA

IZENA.....

ABIZENAK.....

.....

NANa.....



1.- Konstituzio bat:

- a) Europako errege-dekreturik inportanteena da.
- b) Beste lege guztiek baino maila txikiagoa du.
- c) Estatu bateko legerik inportanteena da.

2.- Batzar Nagusiak:

- a) 4 urtean behin aukeratzen dira, foru-hauteskundeetan.
- b) 4 urtean behin aukeratzen dira, hauteskunde orokorretan.
- c) 4 urtean behin aukeratzen dira, udal-hauteskundeetan.



3.- Lan-arriskuen artean mota hauek daude:

- a) Segurtasuneko arriskuak, higiene-arriskuak eta arrisku ergonomikoak eta psikosozialak.
- b) Erortzeko arriskuak, higiene-arriskuak eta arrisku ergonomikoak eta psikosozialak.
- c) Segurtasuneko arriskuak, arrisku kimikoak eta arrisku ergonomikoak eta psikosozialak.

4.- Interesduna den pertsonak Administrazioari esaten dionean ez duela nahi administrazio horrek prozedura bat tramitatzen jarraitu dezala, eta aurrerago ezin duenean eskabide bera aurkeztu, prozedura honela amaitzen da:

- a) Atzera-egitearen bidez.
- b) Uko egitearen bidez.
- c) Iraungitzearen bidez.



5.- Ekonomia Sustatzeko Sailak hau egiten du:

- a) Bizkaiko errepideen eta bideen eraikuntza eta kontserbazioa egiten du.
- b) Autobus bidezko garraioa kudeatzen du Bizkaian: Bizkaibus.
- c) Bizkaiko Ekonomia bultzatzen du, enplegua eta aberastasuna sortzeko: industria eta turismoa sustatzen ditu horretarako.

6.- Foru Jauregian egin beharreko lanetan hauek dira egiaztatu eta ikuskatu beharrekoak:

- a) Gainaldeko hezegailuak.
- b) Sotoko hezegailuak.
- c) Koadro orokorraren ponpa-aretoa.



7.- Espainiako estatua (Espainia) honela antolatzen da:

- a) Probintziak, autonomia-erkidegoak eta administrazio-organoak.
- b) Merinaldeak, udalerriak, eta autonomia-erkidegoak.
- c) Udalerriak, probintziak eta autonomia-erkidegoak.

8.- Ogasun eta Finantza Saileko bulego nagusia hemen dago:

- a) Foru Jauregian. Kale Nagusia, 25.
- b) Azoka eraikinean, Basurtuko Kaputxinoen kaleko 2. eta 4. zenbakietan.
- c) Rekalde zumarkalea, 30.



9.- Espainiako Konstituzioak hau dio Administrazio Publikoari buruz:

- a) Eraginkortasunez lan egiten du, modu deszentralizatu eta deskontzentratuan egiten du lan eta administrazioa hierarkikoa da.
- b) Modu zentralizatu eta kontzentratuan egiten du lan, eraginkortasunez lan egiten du eta modu deskoordinatuan egiten du lan.
- c) Beren lanean legea eta Zuzenbidea bete behar dituzte, administrazioa ez da hierarkikoa eta objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak.



10.- Prebentzio-delegatuak:

- a) Beren burutzak aukeratutako langile batzuk dira.

- b) Beren lankideek enpresan aukeratutako pertsona batzuk dira.
- c) Enpresan lan egiten ez duten pertsona batzuk dira.

11.- Bizkaian hiribilduak dira:

- a) Otxandio, Portugalete eta Ermua.

- b) Bilbo, Durango eta Santurtzi.

- c) Bilbo, Amorebieta-Etxano eta Lekeitio.



12.- Legea guztiontzat berdina izateak hau esan nahi du:

- a) Pertsona guztiek dugu eskubidea gure ideiak eta iritziak askatasunez adierazteko.
- b) Denok libre gara eta seguru sentitzeko eskubidea dugu.
- c) Legeak berdinak dira pertsona guztientzat.

13.- Langileak bere etxetik lanera joateko bidean edo lanetik etxerako bidean duen istripuari honela deritzo:

- a) Misioko istripua.
- b) "In-itinere" istripua.
- c) Kanpoko istripua.



14.- Langile lan-kontratudunak:

- a) Funtzionarioek egiten dituzten lan berberak egiten dituzte.
- b) Lan mota zehatz batzuk egiteko bakarrik kontratatu daitezke.
- c) Lau kontratu mota izanditzakete.

15.- Jarduteko modu bat, non beti oso ondo definitutako pauso batzuk jarraitzen diren lan bat bete ahal izateko, zer da?

- a) Antolamendua.
- b) Prozedura.
- c) Instrukzioa.



16.- Zure lanean akatsak gertatu daitezke, eta akatsak konpontzen saiatu behar gara:

- a) Inportanteena lana egiten jarraitzea da.
- b) Inportanteena jarrera negatiboa izatea da.
- c) Inportanteena akatsen berri ematea da, ahalik eta lasterren konpontzeko.



17.- Foru-arauak:

- a) Ia-ia kasu guztietan, foru-arauak Aldizkarian argitaratzen direnetik 20 egun pasatzen direnean jartzen dira indarrean.

- b) Ia-ia kasu guztietan, foru-arauak Aldizkarian argitaratzen direnetik 30 egun pasatzen direnean jartzen dira indarrean.
- c) Beti, foru-arauak Aldizkarian argitaratzen direnetik 20 egun pasatzen direnean jartzen dira indarrean.



18.- Errekadu urgente bat:

- a) Berdin da noiz egiten den, garrantzitsuena ondo egitea da.
- b) Oso azkar egin behar da, baina ez dauka lehentasunik beste errekadu batzuk azkarrago jaso badira.
- c) Errekadu urgente bat azkar egin behar da, beste errekadu batzuk egin baino lehen.

19.- Bisagren mantentze-lanak maiztasun honekin egin behar dira:

- a) Urtean hirutan edo lautan.
- b) Hilean behin edo bitan.
- c) Urtean behin edo bitan.



20.- Tutuak erabiliz orriak jostea deitzen zaio hainbat orri dokumentu bakarrean batzeari, honela:

- a) Kola erabiliz.
- b) Plastikozko tutu edo espiral bat erabiliz.
- c) Grapak erabiliz.

21.- Enplegatu publikoek lana ondo eta arretaz egiteko duten betebeharrari honela deritzo:

- a) Diligentzia.
- b) Objektiboa izatea.
- c) Arduratsua izatea.



22.- Ur beroaren tenperatura neurtzean, legionelaren protokoloaren jarraipena egiteko:

- a) Ur beroaren sareko iturrietan tenperatura 50° C-koa edo gehiagokoa izan behar da.
- b) Ur beroaren sareko iturrietan tenperatura 50° C-koa edo gutxiagokoa izan behar da.
- c) Ur beroaren sareko iturrietan tenperatura 40° C-koa edo gehiagokoa izan behar da.

23.- Administrazio-prozedura erkidearen faseen ordena hau da:

- a) Hasteko fasea, antolatzeko fasea, instruitzeko fasea eta iraungitzeko fasea.
- b) Hasteko fasea, antolatzeko fasea, instruitzeko fasea eta amaitzeko fasea.
- c) Hasteko fasea, instruitzeko fasea, antolatzeko fasea eta iraungitzeko fasea.



24.- Enplegatu publikoen betebeharrak bat inpartziala izatea da, hau da:

- a) Pertsona guztiei tratu berdina ematea.
- b) Laneko gai guztiei tratu berdina ematea.
- c) Interes publikoari lehentasuna ematea.

25.- Errekadu bat egiterakoan ustekaberen edo gorabeheraren bat sortu bada:

- a) Lankide bati eskatu errekadua egiten laguntzeko.
- b) Saileko edozein pertsonari esan.
- c) Errekadua eskatu dizunari esan.